

LEGAZPIKO UDALA*Iragarkia*

2010eko irailaren 10ean 174 zenbakidun Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako Hiriko Bide Publikoetan Erabilerak, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna Arautzeko Udal Ordenantzan akatsak egon direnez, testua zuzendu da.

Legazpi, 2010eko azaroaren 4a.—Xotero Plazaola Odriozola, Alkatea. (12668)

**HIRIKO BIDE PUBLIKOETAN ERABILERA,
TRAFIKOA, ZIRKULAZIOA ETA SEGURTASUNA
ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA**

**I. ATALBURUA
OROKORTASUNAK**

1go artikulua.

Duela gutxi indarrean sartu da martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko legearen testu artikulatua berritzen duen azaroaren 23ko 18/2009 Legea.

Aipatutako lege-testuaren 7 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako Ordenantza hau ematen da udal araubidea indarrean dagoen legeriara egokitzeko helburuarekin. Horrela, arautzeko gaiak direlakotan, bide publikoetan ordena eta segurtasuna izateari eta haiek erabiltzeko moduei dagozkien arauak sartu dira Ordenantza honetan.

**II. ATALBURUA
GELDITZEA ETA APARKATZEA**

2. artikulua.

Ordenantza honen xederako, geldialdia izango da ibilgailua 2 minutu baino gehiago geldiaraztea, pertsonak utzi edo hartzeko edo zamalanak egiteko.

3. artikulua.

Aparkatzea izango da geldialdian ez dagoen ibilgailuen geldiaraztea. Oro har, ibilgailuak aparkatzea ondoko arauen mende egongo da:

a) Ibilgailuak hiru modutan aparkatu ahal izango dira: Lerroan, hau da, espaloiekiko paralelo; baterian, hau da, espaloiekiko perpendikular; eta erdi-baterian, hau da, zeharrean.

b) Lau gurgildun ibilgailuak aparkatzeko arau orokorra haiek lerroan aparkatuko direla izango da eta bi gurgildunak, aldiz, baterian. Arau horren salbuespena behar bezala adierazi behar da seinaleen bidez.

c) Zoladuran seinalatutako aparkalekuetan, ibilgailuak ezarritako perimetroaren barruan sartuko dira.

4. artikulua.

Debekatutako lekuan edo lerro bikoitzean gelditzea edo aparkatzea, hori arau-hauste arina denean, 30,00 euroko isunarekin zigortuko da.

Mugatutako guneeetan, aparkatzeko baimendutako gehieneko denbora gaintzen denean, 30,00 euroko isuna ezarriko da. Denbora horrek baimendutakoaren bikoitza gaintzen badu, isuna 50,00 eurokoa izango da.

AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI*Anuncio*

Habiéndose detectado errores en la Ordenanza Municipal de Ordenación de Usos, Tráfico, Circulación y Seguridad en las Vías Públicas de Carácter Urbano, insertada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 174 de 10 de setiembre de 2010, se procede a la corrección del texto.

Legazpi, a 4 de noviembre de 2010.—El Alcalde, Xotero Plazaola Odriozola. (12668)

**ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LOS
USOS, TRAFICO, CIRCULACION Y SEGURIDAD EN
LAS VÍAS PÚBLICAS DE CARACTER URBANO**

**CAPITULO I
GENERALIDADES**

Artículo 1.

Recientemente ha entrado en vigor la Ley 18/2009, de 23 de noviembre, que reforma del texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial aprobado por el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo.

Al amparo de lo establecido en el artículo 7 b) del referido texto legal, se dicta la presente Ordenanza con la finalidad de adaptar la normativa municipal a la vigente legislación, incluyendo al tiempo aquellas normas que, por afectar al orden y seguridad en las vías públicas, así como a las formas debidas de utilización de las mismas, se consideran dentro de un mismo objeto de regulación.

**CAPITULO II
PARADA Y ESTACIONAMIENTO**

Artículo 2.

A efectos de la presente Ordenanza se considerará parada toda inmovilización de un vehículo durante un tiempo inferior a dos minutos, para tomar o dejar personas o cargar o descargar cosas.

Artículo 3.

Se entenderá como estacionamiento la inmovilización de un vehículo que no se encuentre en situación de detención o parada. Con carácter general, el estacionamiento de vehículos se regirá por las siguientes normas:

a) Los vehículos se podrán estacionar en fila, es decir, paralelamente a la acera; en batería, es decir, perpendicularmente a aquella y en semibatería, es decir, oblicuamente.

b) La norma general para los vehículos de cuatro ruedas es que el estacionamiento se efectuará en fila y para los de dos ruedas en batería. La excepción a esta norma, se deberá señalar expresamente.

c) En los estacionamientos con señalización en el pavimento, los vehículos se colocarán dentro del perímetro marcado.

Artículo 4.

El estacionamiento o la parada en lugar prohibido o doble fila cuando constituyan una infracción leve, llevará aparejada una sanción pecuniaria de 30,00 €.

Cuando en las zonas delimitadas al efecto, se sobrepase el tiempo de estacionamiento máximo permitido, se impondrá una sanción por importe de 30,00 €. Si dicho tiempo sobrepasara el doble de lo permitido se sancionará con 50,00 €.

5. artikulua.

Zamalanetarako erreserbatuta dauden guneeetan aparkatzea 30,00 euroko isunarekin zigortuko da.

Gune horietan aparkatzearen ondorioz zamalanak oztopatzen badira, isuna 60,00 eurokoa izango da. Kasu horretan, ibilgailua udal-gordelekura eramatea agindu ahal izango da.

6. artikulua.

1. Trafikoari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen Testu artikulatuaren 65.4 artikulua dioenaren arabera, zirkulazioa larriki oztopatuko duten ibilgailuen geldialdia edo aparkatzea, bidea erabiltzen duten gainerakoak arriskuan jartzen direnean eta arau-hauste larria denean, 200,00 euroko isunarekin zigortuko da.

Geldialdiak edo aparkatzeak zirkulazioa larriki oztopatzen duela ulertzen da honako lekuetan ematen denean: Bihurguneetan, aldats aldaketetan, minusbaliotasunen bat duten pertsonen erabiltzeko gordetako aparkalekuetan, elkarguneetan edo bestelako leku arriskutsuan edo zirkulazioa larriki oztopatuko den edo, batik bat oinezkoentzat arriskutsua izan daitezkeen lekuetan.

2. Aurreko lerraldian ezarritako kasuetan, ibilgailua udal-gordelekura eramatea agindu ahal izango da.

7. artikulua.

Espaloi, pasealeku edo oinezkoen guneeetan aparkatzea, -arau-hauste larria ez denean edo ordenantza honen 33.2. artikuluan aurreikusitako kasua ez denean- eta berdeguneetan aparkatzea, 30,00 euroko isunarekin zigortuko da.

8. artikulua.

Aurreko artikulua ez betetzearen ondorioz arrisku-egoeraren bat sortuko balitz, beste erabiltzaile bati galera eraginez, 200,00 euroko isuna ezarri ahal izango da.

9. artikulua.

Ibilgailuen aparkatzea horretarako behar den lekua bakarrik erabiliz egingo da beti. Edonola ere, seinale horizontalak egonez gero, errespetatu egin beharko da beti haiek mugatzen duten lekua. Hori horrela ez egitea 30,00 euroko isunarekin zigortuko da.

10. artikulua.

Aparkaleku publikoetan ezingo dira konpontzeko edo saltzeko dauden ibilgailuak modu iraunkorrean aparkatu. Arauhauste hori 50,00 euroko isunarekin zigortuko da.

Ibilgailu bat etengabe aparkatuta dagoela ulertuko da, ibilgailua gutxienez 7 egun egiten dituenean aparkaleku horretatik mugitu gabe eta konpontzeko edo saltzeko tailer mekanikoaren esku dagoela egiaztatzen denean.

11. artikulua.

1. Erabat debekatuta dago hirugarren mailako ibilgailuak, ibilgailu bereziak, karabana eta atoi-erdiak herriko kaleetan aparkatzea; horiek, horretarako dauden leku berezietan soilik aparkatu ahal izango dira.

2. Dena den, lanegunetan goizeko 8:00etatik arratsaldeko 18:00etara, hirugarren mailako ibilgailuak herriko beste kaleetan aparkatu ahal izango dira, beti ere beste ibilgailuen trafikoa eragotziko ez bada eta autoentzako aparkalekuak mugatuko ez direnean.

3. Artikulu honetan ezarritako debekua ez betetzea, 50,00 euroko isunarekin zigortuko da.

Artículo 5.

El estacionamiento en zonas reservadas para la carga-descarga llevará aparejada una sanción de 30,00 €.

Cuando a consecuencia de dicho estacionamiento, se hayan entorpecido las labores de carga –descarga se sancionará con 60,00€. En este supuesto se podrá ordenar la retirada del vehículo al depósito municipal.

Artículo 6.

1. Según establece el artículo 65.4 del Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, el estacionamiento o la parada de vehículos que obstruyan gravemente la circulación, ponga en peligro a los demás usuarios de la vía, y constituya una infracción grave llevará aparejada una sanción pecuniaria de 200 €.

Se entiende que el estacionamiento o parada obstruye gravemente la circulación en el supuesto de parar o estacionar en curvas, cambios de rasante, zonas de estacionamiento para uso exclusivo de personas con discapacidad, intersecciones o en cualquier otro lugar peligroso o en el que se obstaculice gravemente la circulación o constituya un riesgo, especialmente para los peatones.

2. En los supuestos establecidos en el apartado anterior se podrá ordenar la retirada del vehículo al depósito municipal.

Artículo 7.

El estacionamiento en aceras y paseos o zonas peatonales, siempre y cuando no constituyan infracción grave o este incluido en el artículo 33.2 de la presente ordenanza, así como en zonas verdes, se sancionará con una multa de 30,00 €.

Artículo 8.

Si a consecuencia del incumplimiento del Artículo anterior, se pudiera generar una situación de peligro o menoscabo importante a otro usuario o deterioro, se podrá sancionar con una multa de 200,00 €.

Artículo 9.

El estacionamiento de vehículos deberá realizarse ocupando siempre el espacio necesario. Deberá respetarse, si existe la señalización horizontal, que delimita el estacionamiento. El incumplimiento de ello se sancionará con una multa de 30,00 €.

Artículo 10.

En plazas de aparcamiento públicas, se prohíbe el estacionamiento de forma permanente de vehículos que se hallen para reparar o vender. Las infracciones se sancionará con una multa de 50,00 €.

Se considerará permanente, cuando el vehículo lleve al menos 7 días estacionado sin que se haya movido, y se constate que está a disposición del Taller mecánico para su reparación o venta.

Artículo 11.

1. Queda prohibido el estacionamiento de vehículos de la tercera categoría, vehículos especiales, caravanas y remolques en todas las calles del municipio, excepto en las zonas autorizadas al efecto.

2. No obstante a lo anterior, de las 8 horas a las 18 horas los días laborables, se permitirá el estacionamiento de los vehículos de la tercera categoría, siempre que tales estacionamientos no perjudiquen el tráfico normal de otros vehículos, ni limiten espacios de aparcamientos reservados específicamente para los turismos.

3. El incumplimiento de lo previsto en este artículo llevará aparejada una sanción pecuniaria por importe de -50,00 €.

12. artikulua.

1. Zamilan egiteko denbora mugatuta ez dagoen tokietan, aipatutako lanak lehenbailehen egingo dira eta denbora mugatuta dagoen lekuetan ezarritako lekua eta ordutegia errespetatuz egingo dira. Horrelakoetan, honako arauak hartuko dira kontuan:

a) Geldialdiei eta aparkatzeari buruzko xedapenak errespetatuko dira eta, gainera, herri barruan, udal agintariak ezarritako ordutegiak eta lekuak errespetatuko dira.

b) Ahal bada, ibilgailua galtzadatik gertu egonda egongo dira zamilan.

c) Zamilan ahal bezain pronto burutuko dira eta hirugarrenei zaratak eta eragozpenak sortu gabe. Debeak dago merkantzia galtzadan, bazterrean eta oinezkoen pasabidean uztea.

2. Artikulu honetan ezarritako debekua ez betetzea 30,00 euroko isunarekin zigortuko da, bide publikoa behar ez bezala okupatu delako.

13. artikulua.

Eskatu ondoren eta eskatutakoa betetzen ez bada, ibilgailua bide publikoan aparkatzea dagokion derrigorrezko Asegurupoliza ez duenean, 50,00 euroko isunarekin zigortuko da.

14. artikulua.

Eskatu ondoren eta eskatutakoa betetzen ez bada, ibilgailua bide publikoan aparkatzea dagokion Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren balioa galtuta duenean, 50,00 euroko isunarekin zigortuko da.

III. ATALBURUA ZIRKULAZIOA

15. artikulua.

Autoak, motozikletak eta zikloak pasealekueetatik, oinezkoen eremuetatik eta babesguneetatik, espaloietatik eta berdeguneetatik zirkulatzea, 50,00 euroko isunarekin zigortuko da.

Hauste horren ondorioz, beste erabiltzaileei arrisku larria sortzen bazaie edo ondarean 200,00 euro baino gehiagoko kalteak sortzen badira, 200,00 euroko isuna jarriko da.

16. artikulua.

16.1. Oinezkoen eremuetan zirkulatzea onartuta dagoenean edo espaloirik gabeko bideetan eta oinezkoak dabiltzan beste lekuetan, ibilgailuek oinezkoen pausora egokituko dute euren abiadura, gelditzera ere iritsi arte eta hartu beharreko neurriak hartuko dituzte istripurik gerta ez dadin.

16.2. Modu berean, zoladuraren egoera txarra denean, bidea estutu egiten denean, obrak daudenean, baldintza meteorologikoak txarrak direnean, hartu beharreko neurriak hartuko dira istripurik gerta ez dadin eta oinezkoen kalterik ez sortzeko.

Aurreko ataletan ezarritakoa aintzat hartu gabe eta errespetatu gabe ibilgailua gidatzea zabarkeriaz gidatzea izango da eta, Zirkulazioaren Araudi Orokorren 3.1. artikuluan ezarritako dagoenaren arabera, 200,00 euroko isunarekin zigortuko da.

17. artikulua.

Hirugarren mailako edo dimentsio bereziko ibilgailuek herriko kaleak zeharkatu behar dituzten bakoitzean, gidariak Udaltzaingoari abisatuko dio herrira sartzean. Hori ez betetzea, 100,00 euroko isunarekin zigortuko da.

Artículo 12.

1. En las zonas donde no exista, limitación de tiempo, para efectuar las labores de carga y descarga, éstas se realizarán con la mayor celeridad, respetando, donde los haya, tanto los horarios como las zonas habilitadas, y teniendo en cuenta las normas siguientes:

a) Se respetarán las disposiciones sobre paradas y estacionamientos, y, además, en poblado, las que dicten las autoridades municipales sobre horas y lugares adecuados.

b) Se efectuarán, en lo posible, por el lado del vehículo más próximo al borde de la calzada.

c) Se llevarán a cabo con medios suficientes para conseguir la máxima celeridad, y procurando evitar ruidos y molestias innecesarias. Queda prohibido depositar la mercancía en la calzada, arcén y zonas peatonales.

2. El incumplimiento de las normas anteriores será sancionado con una multa de 30,00 € por ocupación indebida de la vía.

Artículo 13.

Previo requerimiento, en caso de incumplimiento, el estacionamiento del vehículo en la vía pública, careciendo el mismo del correspondiente Seguro Obligatorio, llevará aparejada la imposición de una sanción por importe de 50,00 €.

Artículo 14.

Previo requerimiento, en caso de incumplimiento, el estacionamiento del vehículo en la vía pública, con la ITV caducada, llevará aparejada la imposición de una sanción por importe de 50,00 €.

CAPITULO III CIRCULACIÓN

Artículo 15.

La circulación de vehículos automóviles, motocicletas, ciclomotores por paseos, zonas peatonales, isletas, aceras y zonas verdes se sancionará con una multa de 50,00 €.

Si a consecuencia de dicha transgresión, se generara una situación de grave riesgo para otros usuarios o se ocasionara unos desperfectos al patrimonio, cuya cuantía supere los 200,00 €, se sancionará con una multa de 200,00 €.

Artículo 16.

16.1. En las áreas peatonales cuando esté autorizado, así como en las calzadas sin aceras y otros lugares en que haya afluencia de viandantes, los vehículos reducirán la velocidad al paso normal de los peatones, incluso hasta llegar a detenerse y tomarán las precauciones necesarias para evitar accidentes.

16.2. Igualmente se tomarán las precauciones necesarias para evitar accidentes o molestias a los viandantes, en caso de mal estado del pavimento, estrechamiento de la calzada, obras, condiciones meteorológicas adversas, etc.

La conducción de un vehículo, incumpliendo lo reseñado en los apartados anteriores, tal y como establece el artículo 3.1 del Reglamento General de Circulación tendrá la consideración de conducción negligente y sancionará con una multa de 200,00 €.

Artículo 17.

Siempre que un vehículo de la tercera categoría y de dimensiones especiales haya de circular por las calles de la Villa, su conductor deberá avisar a la Policía Municipal a su entrada en el municipio. El incumplimiento de lo dispuesto se sancionará con una multa de 100,00 €.

18. artikulua.

1. Motordun ibilgailuek, bizikleta lagungarriak izan ezik, ezingo dute bidegorritik zirkulatu eta ezingo dute bertan aparatu. Bi gauza horiek, bertatik zirkulatzea eta bertan aparkatzea arau-hauste larriago bat sortzen ez badute, 50,00 euroko isunarekin zigortuko dira. Bidegorritik zirkulatzearen ondorioz arrisku-egoeraren bat sortzen bada eta lesioak sortzen badira, isuna 200,00 eurokoa izango da.

2. Bizikletak, patinak, monopatinak eta trizikloak horretarako gorde diren errailetatik ibiliko dira. Horrelakorik ez dagoenean, oinezkoak dabiltzan tokitik ibil daitezke baina jendetza handia ez dabilenean eta, beti ere, haien lehenasuna errespetatuz eta haiei arrisku-egoerak sortu gabe; horretarako, abiadura oinezkoaren pausora egokituko dute. Hori ez betetzea, arau-hauste larriago bat sortzen ez denean, 30,00 euroko isunarekin zigortuko da.

3. Ezingo da patinekin, monopatinekin edo antzekoekin bidetik zirkulatu. Horrela egitea, arau-hauste larriago bat sortzen ez denean, 30,00 euroko isunarekin zigortuko da.

4. Bizikletan eta ziklomotolean (baimena dutenean izan ezik) ezingo dira lagunak eraman. Horrela egitea, arau-hauste larriago bat sortzen ez denean, 30,00 euroko isunarekin zigortuko da.

5. Txirrindulari edo moto-ziklista bat baino gehiago doazenean, ilaran joango dira, beraien artean segurtasun-tartea gordez eta abiadura- edo trebetasun-lehiaketak egin gabe. Edozelan ere, debekatuta dago paraleloan zirkulatzea. Horrela egitea, arau-hauste larriago bat sortzen ez denean, 30,00 euroko isunarekin zigortuko da.

IV. ATALBURUA

KIROL PROBAK ETA BESTELAKO JARDUERAK

19. artikulua.

Dagokion baimena eskuratu gabe, kultur eta kirol arloko erakundeek ezingo dute gainerako erabiltzaileek bidea erabiltzeko duten ohitura aldatu, lasterketak edo bestelako jarduerak antolatuz. Ezarritakoa ez betetzea, 100,00 euroko isunarekin zigortuko da.

V. ATALBURUA

ZIRKULAZIOAN ETA APARKALEKUETAN
ERAGINGO DUTEN OBRAK*20. artikulua.*

Bide publikoan obrak edo instalazioak egiteko, edukiontzia jartzeko, hiri-altzariak jartzeko, aldi baterako eta behin betiko bide publikoan bestelako elementuak jartzeko edo aparkalekuak okupatzeko ezinbestekoa izango da dagokion baimena eskuratzea. Hori ez betetzea, 50,00 euroko isunarekin zigortuko da. Instalazio edo muntaketa horien ondorioz arrisku-egoeraren bat sortzen bada, 200,00 euroko isuna jarriko da.

VI. ATALBURUA
INGURUMENA*21. artikulua.*

Hots-seinaleak oker edo gehiegi erabiltzea 30,00 euroko isunarekin zigortuko da.

Artículo 18.

1. La circulación o el estacionamiento, de cualquier vehículo a motor, a excepción de las bicicletas auxiliadas, estarán prohibidos en el espacio habilitado como carril bici. Tal hecho si no constituye una infracción más grave, llevará aparejada una propuesta de sanción de 50,00 €. Si a consecuencia de dicha circulación se originará una situación de riesgo- con resultado de lesiones- se sancionará con 200,00 €.

2. Las bicicletas, patines, monopatinos y triciclos deberán circular por los carriles reservados al efecto, y en su defecto, podrán hacerlo por las áreas peatonales, siempre y cuando la afluencia de peatones lo permita, respetando la prioridad de éstos y sin crear peligrosidad para los mismos, adecuando su velocidad a la normal de un peatón. Tal hecho sino constituye una infracción más grave, llevará aparejada una propuesta de sanción de 30,00 €.

3. Queda prohibido circular por la calzada con patines, monopatinos o similares. Tal hecho sino constituye una infracción más grave, llevará aparejada una propuesta de sanción de 30,00 €.

4. Queda prohibido el transporte de acompañantes en bicicleta o ciclomotor, salvo que éste último lo tenga autorizado. Tal hecho sino constituye una infracción más grave, llevará aparejada una propuesta de sanción de 30,00 €.

5. Cuando circulen en grupo varios ciclistas o motoristas lo harán en fila, manteniendo entre sí las distancias de seguridad y sin entablar competiciones de velocidad o destreza. En todo caso se prohíbe la circulación en paralelo. Tal hecho si no constituye una infracción más grave, llevará aparejada una propuesta de sanción de 30,00 €.

CAPITULO IV
DE LAS PRUEBAS DEPORTIVAS
Y OTRAS ACTIVIDADES*Artículo 19.*

Las Entidades de carácter Cultural y Deportivo, sin contar con la debida autorización, se abstendrán de celebrar carreras o actividades, que puedan alterar el habitual uso de la vía a los demás usuarios. El incumplimiento a lo dispuesto, se sancionará con una multa de 100,00 €.

CAPITULO V
OBRAS QUE AFECTEN A LA CIRCULACION
O AL ESTACIONAMIENTO.*Artículo 20.*

La realización de obras, instalaciones, colocación de contenedores, mobiliario urbano o cualquier otro elemento de forma permanente o provisional en la vía pública al igual que la ocupación de cualquier espacio destinado al aparcamiento, precisará de la preceptiva autorización. El no cumplimiento, llevará aparejada una sanción de 50,00 €. Si a consecuencia de dicha instalación, colocación o montaje se generara una situación de riesgo objetivo se sancionará con 200,00 €.

CAPITULO VI
MEDIO AMBIENTE*Artículo 21.*

El uso indebido o abusivo de señales acústicas se sancionará con multa de 30,00 €.

22. artikulua.

1. Ibilgailuek ezingo dute zaratarik sortu hots-seinaleak gaizki erabiltzearen, azeleratze zakarrak egitearen, ihes-hodiak aldatzearen edo puskatuta izatearen edo antzeko arrazoien ondorioz.

2. Automobilek eta ziklomotoreek sor dezaketen soinu-mailak ez ditu 82 dezibelio (A) gaindituko egunez 8:00etatik 22:00etara eta 76 dezibelio (A) gauzez 22:00etatik 8:00etara. Ziklomotoreek eta motozikletek sortzen duten soinu-maila azelerazioan neurtuko da neurgailua ibilgailutik 7,5 metrora jarritz. Ihes-hoditik aterako den ke edo zarata gehiegizkoa denean, 50,00 euroko isunarekin zigortuko da.

23. artikulua.

Olioak edo errekinak bidera botatzea 50,00 euroko isunarekin zigortuko da. Askatze horren ondorioz hirugarrenei kalteak sortzen zaizkienean edo bidea garbitu eta lehen zegoen moduan uzten ez denean, 200,00 euroko isuna jarriko da.

24. artikulua.

Debekatuta dago bide publikoan ibilgailuak garbitzea eta dozein konponketa-lan egitea. Debeku hori ez betetzea, 50,00 euroko isunarekin zigortuko da.

25. artikulua.

Erabat debekatuta dago zaborra jasotzeko edo birziklatzeko ezarrita dauden lekuetan aparkatzea. Arau-hauste hori 30,00 euroko isunarekin zigortuko da. Zabor-bilketa oztopatuz gero, ibilgailua udal-gordelekura eramango da.

VII. ATALBURUA IBULGAILUA KENDU ETA GORDETZEA

26. artikulua.

Alkatetzaren dekretuaren bidez jasota dagoen ordezkari-tza erabiliz, udaltzainek ondoren aipatuko diren kasuetan, ibilgailuak erretiratu eta udal gordailuan gordeko dituzte ondoko kasuetan:

— Ibilgailua erretiratu eta gordetzeari buruz Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko legearen testu artikulatuaren 85. artikuluan jasotakoa hausten denean.

— Epai-bidezko edo agintari administratiboaren agindua bete behar denean.

27. artikulua.

Ibilgailua jabeari edo hura hartzera datorren pertsonari entregatu baino lehen ibilgailua gordetzeak eta jasotzeak sortu dituen tasak ordaindu beharko dira, dagokion ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera.

28. artikulua.

Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko legearen testu artikulatuaren 84. artikulua dioenaren arabera, Udaltzainek ahalmena izango dute artikulua horretan azaldutako egoeretan dauden ibilgailuak baliabide mekanikoen bidez geldiarazteko.

Artículo 22.

1. Los vehículos no podrán producir ruidos ocasionados por el uso indebido de señales acústicas, aceleraciones bruscas, tubos de escape alterados o deteriorados u otras circunstancias análogas.

2. El nivel máximo sonoro emitido por vehículos automóviles y ciclomotores, no podrá superar los 82 dB (A) de 8 a 22 horas y de 76 dB (A) de 22 a 8 horas. La medición del nivel sonoro emitido por los ciclomotores y motocicletas se realizará en aceleración colocando el aparato de medición a 7,5 metros desde la superficie más próxima al vehículo. La emisión de humos o ruidos excesivos provenientes del escape, se sancionará con una multa de 50,00 €.

Artículo 23.

El desprendimiento de aceites o inflamables a la calzada, se sancionará con multa de 50,00 €. Si a consecuencia de dicho desprendimiento, se ocasionara daños a terceros o no se procediera a reponer la vía a su estado original, se sancionará con 200,00 €.

Artículo 24.

Se prohíbe el lavado de vehículos en la vía pública, así como la realización de cualquier tipo de reparación en la misma. El incumplimiento de sendas prohibiciones será sancionado con una multa de 50,00 €.

Artículo 25.

En las zonas habilitadas para contenedores pertenecientes al servicio de recogida de basura o reciclado, queda prohibido el estacionamiento. El incumplimiento se sancionará con multa de 30,00 €. En el supuesto de imposibilitar la recogida, se procederá a la retirada del vehículo al depósito municipal.

CAPITULO VII DEPOSITO Y RETIRADA DE VEHICULOS

Artículo 26.

Mediante delegación, que se recoge en el correspondiente decreto de Alcaldía, los Agentes de la Autoridad, procederán a la retirada y depósito de vehículos en dependencias municipales en los siguientes supuestos:

— Infracción al artículo 85 del Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial en materia de retirada y depósito.

— En cumplimiento de una Orden Judicial o Autoridad Administrativa.

Artículo 27.

Las tasas de retirada y depósito se exigirán, previamente a su puesta a disposición del vehículo a su titular o persona que se haga cargo del mismo, de conformidad con lo previsto en la Ordenanza Fiscal.

Artículo 28.

Al amparo de lo establecido en el art. 84 del Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, se faculta a los Agentes de la Policía Municipal para poder inmovilizar mediante medios mecánicos precisos, aquellos vehículos que se encuentren en alguna de las situaciones descritas en dicho precepto.

29. artikulua.

Gaizki aparkatuta dagoen, maniobrak egitea galaraziko duen, eraikinetara sartzea oztopatuko duen edo beste erabiltzaileei bidea erabiltzea eragotziko dien ibilgailua gurpil mekanikoen bidez lekuz alda badaiteke, ibilgailua bertan geratuko da mugiezirik, gidariak udaltzainei hura zirkulazioan jartzea eskatuko dien arte; horretarako, ibilgailua geldiarazteak sortu dituen gastuak ordaindu beharko ditu. Gastu horiek dagokion Ordenantza Fiskalean egongo dira ezarrita.

30. artikulua.

1. Bide publikoan abandonatuta dagoen ibilgailua jaso eta horretarako gaitu den udal-gordelekura eramateak kostu batzuk sortuko ditu eta horrezaz gain udal-gordelekuan egongo den egun bakoitzeko kopuru bat. Aipatu kopurua dagokion Ordenantza Fiskalean ezarriko da.

2. Ibilgailua abandonatuta dagoela ulertuko da eta, beraz, ibilgailuen hondakin-tratamenduari buruzko Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunaren legearen testu artikulatuaren 86. artikuluan jasotakoa izango da aplikagarri, honako kasuetan:

a) Leku berean hilabete bat baino gehiago aparkatuta dagoenean eta kanpoaldetik apurtuta eta hondatuta dagoela nabari denean eta autoa ezin dela erabili garbi ikusten denean.

b) Geldi dagoela bi hilabeteko epea igaro denean eta epe horretan ibilgailuaren egoera erregularizatu ez bada edo konpondu ez bada.

c) Aipatutako artikuluan jasotako beste edozein egoera ematen denean.

VIII. ATALBURUA OROKORRA

31. artikulua.

Agenteek emandako argibideak aintzat ez hartzea, haiei men ez egitea eta errespetua ez gordetzea, legez kontrako arau-haustea ez denean, 100,00 euroko isunarekin zigortuko da.

32. artikulua.

Isuna borondatez ordaindu ahal izango da, salaketa entregatuko den une berean, hamabost egun naturaleko epean salaketaren jakinarazpena jasoko den biharamunetik kontatzen hasita edo hogeitun egun naturaleko epean salaketa momentuan entregatu den biharamunetik kontatzen hasita. Borondatezko ordainketa egitean, Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko legearen testu artikulatuaren 80. Artikuluan ezarritako murrizketak eta ondorioak jasoko dira.

33. artikulua.

1. Ordenantza honetan ezarritako isunen zenbatekoa %50 gehitu egingo dira (beti ere Legean ezarritako gehienezko muga gainditu gabe), araua hausteaz gain arrisku bat sortuko duten egoera bereziak ematen direnean; hala ere, aintzat hartuko dira, beti ere, zirkulazioaren intentsitatea, bidearen ezaugarriak eta baldintzak, eguraldia eta ikuspen-baldintzak, eta bestelako ibilgailu eta erabiltzaileak bertan elkartzea.

Artículo 29.

Si mediante las ruedas mecánicas, se pudiera desplazar un vehículo que se encuentre indebidamente estacionados, perturben la maniobra, el acceso a inmuebles o uso preferente de la vía por parte de otros usuarios, el mismo quedará inmovilizado, hasta que su conductor solicite a la Policía Municipal, su puesta en circulación, para lo cual habrá de satisfacer, previamente el importe de los gastos ocasionados con motivo de la inmovilización cuya cuantía se establecerá en la correspondiente Ordenanza Fiscal.

Artículo 30.

1. La retirada de un vehículo de la vía pública al Depósito Municipal, habilitado al efecto, que tenga su origen en la situación de abandono del mismo, llevará aparejada junto con el abono de las costas correspondientes por su retirada, el abono de una cantidad por día de permanencia en el Depósito Municipal. Dicha cuantía será la establecida en la Ordenanza Fiscal.

2. Se presumirá abandonado un vehículo y como tal se podrá aplicar lo previsto en el artículo 86 del Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, en materia de tratamiento residual del vehículo, si se da alguna de las circunstancias siguientes:

a) Cuando permanezcan estacionado por espacio de tiempo superior a un mes en el mismo lugar y presente exteriormente desperfectos o deficiencias, que hagan presumir su no uso y por la presencia o carencia de elementos que no haga posible su inmediata puesta en marcha.

b) Cuando en el plazo de dos meses desde su inmovilización y requerimiento de regularizar su situación o subsanar desperfectos, no lo haga.

c) Cualquiera de las otras circunstancias recogidas en el reseñado artículo.

CAPITULO VIII GENERAL

Artículo 31.

El desacato, falta de respeto, hacer caso omiso a las indicaciones de los Agentes, siempre y cuando no constituya un ilícito penal, se sancionará con una multa de 100,00 €.

Artículo 32.

El pago voluntario de la multa, ya sea en el acto de entrega de la denuncia o dentro del plazo de quince días naturales contados desde el día siguiente al de su notificación o en los veinte días naturales siguientes a la denuncia cuando fuera notificada en el acto conllevará la reducción y las consecuencias establecidas en el artículo 80 del Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial.

Artículo 33.

1. Las cuantías de las multas establecidas en esta Ordenanza, se incrementará en un 50%, sin que en ningún caso excedan el límite máximo permitido por la ley incrementos incluidos, cuando concurren situaciones especiales que supongan un riesgo añadido y concreto de la infracción, teniendo en cuenta la intensidad de la circulación, las características y condiciones de la vía, las condiciones atmosféricas o de visibilidad, la concurrencia simultánea de vehículos y otros usuarios.

2. Dena den, Ordenantza honetan jasotako aginduak haustegatik ezarriko diren zigorrak larriagotzeko arrazoiak izango dira ondoko hauek:

a) Araua berriro haustea. Arau-hauste arinak direnean, isuna %50 gehituko da.

b) Ibilgailua espaloiairean erdia baino gehiago okupatuz aparkatzea edo geldiaraztea eta, erdia baino gehiago ez erabili arren, ibilgailua espaloian edo oinezkoen pasabidean aparkatzea. Kasu honetan 60,00 euroko zigorra jarriko da.

c) Suteetako ur-hartunearen gainean edo hura erabiltzea oztopatuz aparkatzea eta zabor-edukiontzien ondoan eta haiek jasotzea oztopatuz aparkatzea. Kasu horietan, 60,00 euroko zigorra jarriko da.

d) Larrialdietarako irteeretan, baimendutako pasabide iraunkorretan eta autobus-geralekuetan aparkatzea. Kasu horietan, 80,00 euroko zigorra jarriko da.

34. artikulua.

Hiriguneko eta udal eskumeneko trafikoari dagozkion gaiekin zerikusia duen edozein arauan aurreikusitako bestelako aginduak haustea Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko legearen testu artikulatuaren 67. artikuluan ezarritako kopuruekin zigortuko da. Arinak diren arau-hausteei dagokienez, 50,00 euroko isunarekin zigortuko dira, Ordenantza honen 33. artikuluan aurreikusitakoa gertatzen denean izan ezik.

Azken xedapenak.

Lehenengoa.

Ordenantza honek indarra hartuko du Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratu eta hamabost eguneko epea igaro eta gero.

Bigarrena.

Alkatetzak eskumena izango du Ordenantza honen interpretazio eta ezarrera egokirako eman beharko diren agindu eta jarraibideak emateko.

Xedapen indargabetzailea.

Indargabetuta geratzen da joan den 2009ko urriaren 6ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen Trafiko, motordun ibilgailuen zirkulazio eta bide-segurtasun arloko arau-hausteengatik zigorrak arautzen dituen udal Ordenantza.

2. En todo caso, se considerarán causas de agravamiento de las sanciones por infracción de los preceptos de esta Ordenanza, las siguientes:

1. Reincidencia. En supuesto de infracciones leves, se incrementará en un 50% sobre la originaria.

2. La parada o el estacionamiento de vehículos ocupando más de la mitad de la acera y aún no ocupando más de la mitad, estacionar el vehículo totalmente en la acera o zona peatonal. En este supuesto se sancionará con 60,00 €.

3. El estacionamiento sobre una boca de incendios o impidiendo su uso e igualmente junto a los contenedores de basura impidiendo su recogida. En este supuesto se sancionará con 60,00 €.

4. El estacionamiento delante de las salidas de emergencia, vados autorizados y paradas de BUS. En este supuesto se sancionará con 80,00 €.

Artículo 34.

La infracción de cualquier otro precepto, contemplado en cualquier norma que tenga relación con materias que afecten al tráfico en casco urbano y de competencia municipal, será sancionada en principio en la cuantías establecidas, en el artículo 67 del Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial. En cuanto a las infracciones catalogadas como Leves, se les impondrá una sanción de 50,00 €, salvo que concurra alguna circunstancia contemplada en el artículo 33 de la presente Ordenanza.

Disposiciones finales.

Primera.

Esta Ordenanza entrará en vigor a los quince días hábiles contados desde su publicación íntegra en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Segunda.

La Alcaldía queda facultada para dictar cuantas órdenes e instrucciones resulten necesarias para la adecuada interpretación y aplicación de la Ordenanza.

Disposición derogatoria.

Queda derogada la Ordenanza municipal reguladora de las sanciones por infracciones de tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa del 6 de octubre del 2009.